

Euskarazko hedabideak Iruñerrian

Iker Tubia Barberia

Ez da erraza euskaraz mintzo diren hedabideen biziraupena Nafarroan. Hiru eremutan banaturiko probintzia da (iparraldean 'eremu euskalduna', erdialdean 'eremu mistoa' eta hegoaldean 'eremu ez-euskalduna') eta aurten 9.567 euroko aurrekontua dute euskarazko hedabide guzien artean banatzeko (iazko diru-laguntzen %96ko jaitsiera beraz). Ez dago zalantzarik, euskarazko hedabideek bide makurra dute ibiltzeko, baina urratsez urrats, gelditu gabe, aitzinera egin daiteke. Bidean, beharbada, motxila utzi beharko dute (Ttipi-Ttapak, adibidez, telebista emisioa eten behar izan du), baina inoiz ez dute etsiko eta bidean jarraituko dute. Aurrera egiteko gogoz dira denak.

Jarraian Iruñerrian euskara komunikatzeko tresna duten hiru hedabideen azterketa egingen dut. Kontuan izan behar dugu Iruñerria 'eremu misto' izendatu duten horren barnean kokaturik dagoela. Euskaldun kopurua ez da sobera handia eta administrazioek trabak besterik ez dizkiote jartzen euskarari. Euskalerrria irratia kasuan gehiago sakonduko badut ere, ezin ahantzi ditzaket Axular (Burlata), Karrika luze (Atarrabia) edo Karrikiri (Iruñea) euskara elkarteek kaleratzen dituzten aldizkariak.

1. Iruñerriko egoera soziolinguistikoa:

Arestian aipatu dudan bezala, Nafarroa Garaia hiru eremu linguistikotan bananduta dago. Iruñerria, eremu 'mistoaren' barnean dago txertaturik (Aranguren, Noain-Elortzibar, Galar eta Beriain udalerriak izan ezik, eremu 'ez-euskaldunaren' barnean baitaude) eta bertan herritarren %16,7 elebiduna da, %10,1 elebidun hartzailea eta %73,2a elebakar erdalduna.

1. Grafikoa

Euskararen ezagutza Iruñerriko biztanleetan (%etan)



Iruñerrian 306537 biztanle dago, baina 15 urtetatik gorakoak 256069 dira eta azken hauek dira goiti diren datuak lortzeko ikertu direnak. Beraz, 42764koa da euskaldunen kopurua (25607 pertsonak zailtasunak ditu hizkuntzarekin) eta masa horri besterik ezinen zaio bideratu euskarazko komunikabideen lana. Bestalde, hagitz garrantzitsua da aipatzea administrazioen diru-laguntza eskasak eta Euskalerrria irratia kasuan gehiago sakonduko badut ere, ezin ahantzi ditzaket Axular (Burlata), Karrika luze (Atarrabia) edo Karrikiri (Iruñea) euskara elkarteek kaleratzen dituzten aldizkariak. Azken honek ez du lizentziarik, beraz, ez du Nafarroako Gobernuak laguntza ekonomikorik jasotzeko aukerarik. Honela ba, argi izan beharko dugu Iruñerrian dauden hedabide euskaldunak ingurune zail honetan garatu behar dutela.

2. Euskara elkarteetako hedabideak

Iruñerriko hedabide euskaldunak gutxi dira. Badaude Nafarroan, hedadura geografiako zabalago bat helburu duten hedabideak (Nabarra aldizkaria adibidez), baina lan honetan hiriburuko eskualdea izanen dut mintzagai, beraz, tokian-tokiko hedabideez arituko naiz. Idatzizko hedabideak euskara elkarteek argitaratzen dituzte Iruñerrian. Karrikaluze elkarteak (Atarrabia) Xuka hilabetekaria kaleratzen du, Axularrek (Burlata) elkartearen izena daraman aldizkaria eta Iruñerrian. Karrikiri euskara elkarteak (Iruñea) Karrika hedabide idatzia.

2.1. Xuka hilabetekaria:

Xuka, Atarrabiako Karrikaluze euskara elkarteak hileroko (udan izan ezik) kaleratzen duen hedabidea da. Bere garaian diptikoa zena, egun triptikoa itxura du (6 orrialdeko alea da beraz) eta euskarari zein Atarrabiako bizilagunei atxiki zaizkien gaiak jorratzen ditu. 1999. urtean abiatutako proiektu honek, herri nafar honetako biztanleria euskaldunarengana heltzea du xede. 800 aletako tirada du eta doan banatzen da herrian zehar. Karrikaluzeren jardueraren berri emateko eta baita herrian eta inguruan euskaraz egiten denari buruzko informazioa zabaltzeko ere erabiltzen dute hilabetekaria. Elkarrizketak eta erreportajeak inoiz ez dira falta, ezta agenda ere. Azken hau da hilabetekariaren atalik garrantzitsuenak, izan ere, hileroko Atarrabian euskaldunei zuzenduriko eskaintza kulturala biltzen baitu. Erreportaje eta elkarrizketetan, herriko elkarte eta kolektiboak ageri dira normalean. Hala ere, noiz edo noiz gainditu egiten dituzte Atarrabiako mugak, Euskal Herriko txokoren bateko informazioa helarazteko asmoz. Esanenez, hilabetekari hau gazteendako egokia dela, jorratzen dituen gaiengatik batik-bat, baina helduek ere atsegin handiz irakurtzen dute herriko hedabide euskaldun bakarra baita.

Karrikaluze elkarteak konturatu da XXI. mendean internetek duen garrantziaz. Horregatik, Xuka hilabetekaria sarean irakurtzeko parada ematen dute PDF formatuan, 5. aletik aitzina irakur liteke heien webgunean (<http://www.karrikaluze.org/xuka.htm>). Gainera, aldizkariaren gain, Atarrabiako euskara elkarte honek eskaintzen dituen bestelako zerbitzuez ere gozatu daiteke sarean duten txokoan.

Xuka aldizkaria euskara hutsean idatzia da. Hautatu duten hizkuntza moldea arina da, ulerterraza. Atarrabiako karriketara aditu daitekeen hizkuntza darabilte haien idazkietan. Zuzena, noski baietz, baina era berean gertukoa. Gainera, testu luzeegirik ez dute idazten, beraz, euskaldun berriendako ere aproposa da hedabide honen kontsumoa. Elkarteak sinisturik dago hilabetekariak herritarren sentsibilizazioan duen eraginaz. Haien helburua euskal komunitatea sendotu eta berau hedatzea da, eta horretan dihardute hileroko ale bat atezaz.

2.2. Axular aldizkaria:

Burlatan ere bada euskara elkarterik eta honek ere badu bere jardueraren berri emateko eta euskara eta euskal kulturaren inguruko berriak kaleratzeko hedabide inprimatu bat. Xuka hilabetekariaren antzera, hau ere herritarrengan pentsaturiko aldizkaria da, elkartearen izen bera hartzen duena: Axular. Aldizkari hau aurrekoa baino higitzez landuagoa da. Paper onean inprimatua, orrialde gehiago ditu eta erreportaje eta elkarrizketa landuagoak ere bai. Bere aurrekontua ere ez da berdina, noski. Burlatako aldizkari euskaldun honek Burlatako jendea ezagutarazten du (kirolariak, idazleak, elkarteak, kolektiboak, ...) baina ale gehienetan herriko mugak gainditu eta Euskal Herriko hainbat txokotara jotzen du (Zuberoako Maskaradak, Durangoko Azoka, ...). 'Diskoak' eta 'Musika'(euskal talde bati eginiko elkarrizketa) atalak alero irten dira, baita literaturari eta komikiei (*Apoloren* 'Nafar Kondairak' edo 'Migeliko Gaixua', eta *Belatzen* komikia) dagokienak ere.

Aldizkari hau urtean lautan kaleratzen da, 3000 aletako tirada duelarik, eta jada 48. alea inprimatu dute.

Bestelako baliabiderik ere erabiltzen dute burlatarrengana heltzeko: Internet adibidez. Bertan, elkarteko zerbitzuen berri emateaz gain, Axular aldizkaria irakurtzeko parada du sartzen den orok (www.axularnet.com/web/axularkulturelk.html).

Hizkuntzari dagokionez, kuriozoso da nola ez den euskara hutsean idatzia. Erreportaje eta elkarrizketen sarrerak gazteleraz idazten dituzte normalean, nahiz eta gainontzeko testua euskaraz izan. Honela, erdaldunek lauzpabost lerro irakur ditzakete testuetan. Horrek euskara ikastera bultza ditzake, bestela ez baitute informazioa osorik eskuratzerik izanen. Erabiltzen duten euskara, zuzena eta landua da, ondorioa kalitatezko aldizkaria duelarik. Bestalde, herritarrek parte hartzeko aukerarik badute haiek idatziriko artikuluren bat bidaliz.

2.3. Karrika hilabetekaria:

Euskara elkarteek sortzen dituzten idatzizko hedabideekin akitzeko, Iruñeko Karrikirik (<http://www.karrikiri.org>) hilero kaleratzen duen Karrika aipatu beharra daukat. Azken bi hilabeteotan ezin izan da Karrika irakurri, barne hausnarketa kanpaina batean murgildurik baitaude. 'Zubi honetan zu ere giltzarri' lemapean, Iruñeko euskaldun ororen iritzia eskuratu nahi dituzte hilaren 23an eginen diren jardunaldietan. Reyes Iraola Karrikiriko kideak Diario de Noticiasi azaldu zizkion prozesu honen nondik norakoak: "Denbora honetan zehar jende asko geratu da bidean eta gainera, ez dira lagun berriak elkartera gerturitzen. Euskaldunon artean zubiak sendotu nahi ditugu, guztiok izan dezakegu paper garrantzitsu bat, denak gara giltzarri". Dena dela, bi hilabete hauen aitzinetik Karrika aldizkariak Iruñeko euskalduntze prozesuan izan duen eragina aztertuko dut.

12 urtetan zehar Karrikiri elkartearen berri emateko baliabidea izan da Karrika. Hala ere, ez da Karrikiriko bazkideendako eginiko hedabidea, iruindar orok baitu hedabide hau doan eskuratzeko aukera. Egun, 3500 aleko tirada du Karrika hilabetekariak eta 10 ale ezberdin kaleratzen ditu urtean (abuztuan ez da argitaratzen eta urte amaieran azaroa-abendua ale bakar batean elkartzen dira). Gainera, Karrikiri elkartearen berri emateaz gain, euskarari lotutako gaiak ere jorratzen ditu. Horretarako, hainbat ataletan banaturik dago 8 orrialdeetako hilabetekari hau. *Azaleko artikulua*, euskaldunen sentsibilizazioa bilatzen duena, eta *Agenda* dira atalik garrantzitsuenak. Bestalde, *Barnetik kanpora* -Karrikiriren barruan gertatutako gauzen inguruan informatzen duena-, *Zenbat buru hainbat aburu* -euskarari lotutako gaien inguruan mintzatzen dena-, *herriko eleak* -beste lurraldeetako hizkuntzez hitz egiten duena- eta *Zaldieroaren* komikia alero ageri diren atalak dira.

Darabilen hizkuntza moldearen inguruan, euskara landu eta zuzena dela esan genezake. Iruñean mintzatzen den euskara darabil, beti ere, modu egokian jantzirik, izan ere Karrikak garrantzi handia ematen dio hizkuntza moldeari. Hala ere, hausnarketa prozesu horren ondoan ez dakigu hizkuntza eredia aldatuko dutenetz. Honetaz gain, aipatzekoa da Karrika hilabetekaria Iruñean erreferentzia izan dela. Euskaldun orok bertara jotzen du euskal agendaz informatzeko eta aunitz dira euskara hutsez idatziriko hedabide hau hilabetean behin irakurtzen dutenak, heldu zein gazte, euskaldun zahar zein berri. Artikulu arinak izanik, edonork irakur ditzake. Horregatik, Hizkuntza Eskolak ere erabiltzen ditu ikasketa-prozesuan. Arinak izanagatik, lehenago aipatu dudan eran, hizkuntza aldetik zuzena eta landua erabat. Hala ere, esan beharra dago 26 urtetik goiti dela Karrika irakurtzen dutenen adina, eta horrek, nahi eta nahi ez badu eraginik artikuluen gaiak hautatu eta idazterako tenorean.

3. Euskalerria Irratia

3.1. Egoera

Euskara elkarteek hedabideez gain, Euskalerrria irratia da Iruñerriko bertako, hots, eskualdeko euskarazko hedabide bakarra. Irrati hau “tikia” eta “xumea” da bertako zuzendari Mikel Bujandaren aburuz, baina txikitasun horretan handia da oso. Lehenagotik aipatu dut nola Iruñerrian %26a baino ez dela euskalduna eta horietatik ia erdiak zailtasunak dituela hizkuntza erabiltzeko eta ulertzeko tenorean. Honek asko murrizten du hedabide euskaldunak izan dezaketen audientzia. Gainera, administrazioetatik jasotzen diren diru-laguntzen izugarritzko murrizketak (%96koa aurten) kalterik baino ez die ekarri euskal hedabideei. Baina, Euskalerrria irratia badu oztopo gehigarri bat, besteek ez dutena: lizentzia falta. Horregatik, Iruñeko irratia euskaldunak ez du laguntza-ekonomiko murriztz horietatik deus hartzeko aukerarik. Nafarroako Gobernuak txosten ofizialetan ez dira ageri. Bujandak txirrindularitzarekin alderatu zuen euskal hedabideen errealitatea: “maldan gora doaz euskal hedabideak Nafarroan, baina guk, gainera, gorpila zulaturik dugu”. Beraz, Euskalerrria irratia azken hogeitun urtetan garatu den testuingurua azalduz, has naiteke beraz aztertzen.

Euskalerrria irratia Iruñerrian aditzen da FMko 91.4ean, 1988ko azaroaren 7tik. Euskara errealitate bizia dela zabaldu eta erakusten ahalegindu dira urte hauetan zehar. Hala ere, Bujandak argi du “bizia bezain ahula” dela gure hizkuntza. “Iruñean aditzen da euskara, multzo bat badago, baino gehiago dira euskara maite dutenak. Beraz, ez da lortu oraindik masa kritikoa; ez da sendoa, hauskorra eta ahula baizik”. Iruñerrian paper garrantzitsua betetzen du irratia, euskaltegietan, eskoletan eta euskaltzaleen artean txertatu da. “Egin dugu bide puska bat, baina ez dugu helburua lortu erabat”. Ez daki lan gehiago egin dezaketenik edo kontua “puntua” bilatzea baino ez den, baina etorkizuna ziurtaturik ez dutelakoan dago. “Euskaraz bizi den komunitatea sendotu behar da; zenbat eta sendoago euskal komunitatea orduan eta sendoagoa izanen da irratia”.

3.2. Zer eta Norendako?

Hedabide iruindarrak helburu duen gizarte-taldea aztertzekotan, argi eta garbi ikusiko genuke adin batean sartuak direnek kontsumitzen dutela. CIESeK 2005. urtean egindako azterketaren arabera, entzuleen %75ak 26 urtetik goiti ditu eta 26-55 urte artean kokatzen da entzuleriaren %65a. Heldua da beraz Euskalerrria irratia duen entzuleen gehiengoa, eta nola ez, euskalduna. 6000 eta 8000 inguruan ibili ohi dira entzule kopuruak, eta gutxi dirudien arren, kontent azaltzen dira irratiko langileak datuok. Gazteendako programazioan “erren” ikusten du bere burua Mikel Bujandak, hala ere, haien asmoa irratia profesionala egitea da, eta duten presupuestoarekin (300000€ urtean) eta langileekin (12 orotara) ezin dira leku guzietara heldu. Dena dela, programazio zabala eskaintzen du irratia. Arreta egiten dio gertuko errealitateari, bertako jendearen bizimoduari, poz eta nahigabeei, hauen proposamen eta ekimenei. Horregatik, inork baino hurbileko programazio gehiago eskaintzen du. Informazio saioak goizean, bazkalurrean eta bazkalondoan, *Karrikoluzio* goizeko magazina eta *Arratsalde.on* arratsaldekoa. Arrats beranduan musika saioei ematen diete tokia. Asteburuetan, berriz, ez dago irratsaierik egiteko baliabide ekonomikorik (Osasunak jokatzeko dituen futbol partiden kontakizunak salbu), beraz, Euskadi Irratiaren programazioa hedatzen dute FM 91.4an. Horrela egiten dute ere astean zehar, eguneko programazioan hutsunerik egon ez dadin. Dena dela, berrogei ordu baino gehiagoko emankizun lokalak eskaintzen ditu Euskalerrria irratia.

3.3. Bestelako euskarriak

Euskarrien aldetik ere ez dabilta nahi bezain ongi. Interneten badute gunea, baina fonotekaz gain, ezer gutxi

aurki daiteke bertan: lizentziaren auzia, irratia historia eta bazkide egiteko orria. Bujandak dionez, horretan daude, baina www.euskalerrairratia.com-ena ez zen esperientzia asegarria izan, zailtasun teknikoak gehiegi omen zirelako. Tokian-tokiko hedabideek beharbada ez dute beharko mundu zabalera jalgi, baina geroz eta gehiago dira bertan, irratia Interneten baliabideak eskaini dituztenak. Adibidez, Nafarroako beste irratia euskaldun batzuk egin dute sarera jauzia Euskal Herritik at emigratu dutenengana heldu ahal izateko. Beraz, nahiz eta data zehatz bat esan ez, heldu den ikasturterako saiatuko direla dio Bujandak, beti ere, “zama gehigarria” bihurtzen ez bada.

3.4. Hizkuntza-eredua

Euskalerria irratia euskara hutsezko programazioa eskaintzen du Iruñerrian. Irratiko zuzendariari darabilten hizkuntza-ereduaren inguruan galdetuz, honela erantzun zidan: “Hizkuntza bizia da gurea, espresiboa. Arauak noski, errespetatzekoak dira, baina ahozko mintzaira da lantzen dena. Zuzentasunak adina balio du adierazkortasunak. Hizkuntza koloretsua da nahi duguna, transmititzeko balio duena”. Euskalerria irratia saiatzen da karrikako euskara erabiltzen, modu naturalean. Baina irratia profesionala izanik, zorroztasunez kontrolatu behar dituzte hizkuntza arauak. Ez baitute irratia libre bat nahi, haiek argi dute irratia profesionala dela Euskalerria irratia. Euskara nahiko bazterturik eta marjinetan dagoen honetan, beharrezkoak dira hizkuntzari duintasuna emanen dioten hedabideak. Lehenago ere aipatu dut nola irakaskuntzan, Hizkuntza Eskolan zein euskaltegietan erabiltzen duten, eta horrek ardura handia dakar. Beraz, irratia honek ez du bakarrik euskaldunengan eragiten, baita euskara ikasten ari diren ere, eta Iruñerriko euskaldun kopuruaren datuak ikusi ondoren, argi dago Euskalerria irratia rol garrantzitsua jokatzen duela hizkuntzaren normalizazioaren bidean.

4. Ondorioak

Agerian geratu da zein den Iruñerriko euskarazko hedabideen errealitatea. Gutxi dira eta gainera, haien baldintzak ezin okerragoak. Euskalerria irratia, adibidez, administratiboak ez diren bestelako diru-laguntzak bilatu behar izan ditu: Elkarteko bazkideak, Udalbiltzarekin dituen akordioak, Eusko Jaurlaritzak proiektu batzuetatik eman dizkion laguntza apurrak eta garrantzitsuena, publizitatea. Hala ere, oztopoak-oztopo, euskal hedabideak aurrera darraite. Ikusiko da zer gertatuko den Karrika hilabetekariarekin, baina ziurrenik, berandu baino lehen Iruñeko karraketan eskuratzetik izanen dugu.

Nire aburuz, alde batetik gabezi handia da eskualdeko hedabide publikorik ez izatea (ez telebistarik, ez prentsarik), baina horrek ere euskaraz mintzo diren hauei indar ematen die. Izan ere, ez dago eskualdeko bertako informazio gehiago ematen duenik. Bestalde, geroz eta gehiago dira euskal hiztunak Nafarroan, eta noski, Iruñerrian ere, eta honek ekar dezake euskal hedabideak gehiago kontsumituko dituen belaunaldi berri bat. Hala ere, irratia eta prentsaren kontsumoa jaisten ari den honetan, zer edo zer berria asmatu beharko dute euskarazko hedabide iruindarrek, hartara, hedadura handiagoa izatea lortuko bailukete, euskal komunitatea zabalduz eta sendotuz.

Euskarari dagokionean, hedabideok izugarriko lana egin dute hizkuntzaren garapenaren bidean. Administrazioak konpondu baino, urtetik urtera larriagotzen saiatzen duen arazoaren aurrean (euskararen normalizazioarena alegia), komunikabide euskaldunek neurria hartu diote egoerari eta iruindarren hizkuntza eskubideak errespetatzeko urratsak eman dituzte. Bertako kalitatezko informazioa igortzea izan da Euskalerria irratia xedea, haien elkarten jardueren inguruko informazioa azaltzea bestea.

Hala ere, denen helburu izan da euskara bultzatzea, euskara eguneroko hizkuntza bihurtzea eta euskal komunitatea Iruñerrian sustatzea. Gainera, euskara bizi baten aldeko apustua egin dute, herrikoa, denek ulertzeko

egokia. Baina aldi berean zuzena, Euskaltzaindiaren arauak errespetatuz. Izan ere, kaleko mintzaira baino gertuagorik ez du izanen gizarteak eta hori da herri hedabideen oinarria: gertutasuna.

Azkenik aipatu beharra daukat, Nafarroako Irrati Euskaldunen Sarea (NIES) sortu dela (<http://www.irratiasarea.com>). Sare honen xedea, Nafarroako irrati euskaldun guziendako programazio bateratua egitea da, beti ere, eskualdekako irratsaioak mantenduz. Honela, baliabideak batuz, indar handiagoa hartzen ahalko baitute gure irratiek. Proiektua polita da eta hasi dira haien arteko harremanak sendotzen, baina Mikel Bujandak urruti ikusten du. “Amets ederra da, baina oraingoz hori baino ez: ametsa”. Agian, etorkizun hurbil batean izanen da akordio hau sendotzeko aukerarik eta guzien artean Nafarroako irrati sendo bat egiten ahalko dute, probintzia osorako irratsaioak eskualdekoekin tartekatuko dituenak. Agian, sarea aitzina joanez gero, bestelako hedabideen erreferentzia bihurtzen ahalko da, eta hedabideen sare sendo berriak sortuz. Adibidez, badago “Nafarpress” deituriko sarea, baina ez da euskal hedabideendako soilik, Nafarroako herri aldizkari guziak hartzen baititu bere barnean (bai erdarazkoak, bai euskarazkoak).

Bidea luzea da, maldan gora. Batzuk gainera bizikletako gurpila zulaturik dute. Baina tropelean errazago igotzen da malda bakarka baino.